

## HIZKUNTZA GAITASUNEN AZALPENA

### 3. HE

#### 3. HEren hizkuntza-gaitasunen azalpena

Mailaren jabea gai da:

- Edozein hizkeratan egindako elkarrizketak ulertzeko, baita gai orokor, abstraktu eta hainbat gai espezialduren inguruko jarduna ere, nahiz eta xehetasun guztiak ez jaso.
- Era askotako testu luzeak ulertzeko, gai orokorren zein lanaren ingurukoak, baita abstraktuak ere, bere lan-esparrutik haratagoko gai espezialduei buruzkoak ez badira.
- Lan-arloko zein gai orokorren inguruko edozein elkarrizketatan, eztabaidatan, nahiz bestelako adierazpenetan, bat-batean, jarioztasunez, naturaltasunez, eraginkortasunez eta zuzen hitz egiteko, ia ahaleginik egin gabe.
- Lan-esparruko eta gai orokorren inguruko edozein testu mota sortzeko; testu argiak, ondo egituratuak eta antolatuak, koherenteak eta zuzenak idazteko.

3. HE eta Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren (EEMB) C1 maila baliokideak dira.

#### C1 mailaren deskribapen orokorra (EEMB)

Gai da era askotako testu luzeak irakurtzeko eta nolabaiteko eskakizun-mailari erantzuteko, eta gai da, orobat, testu horietan esanahi inplizituei antzemateko.

Badaki jarioztasunez eta bat-batean gauzak adierazten, esapide egokia aurkitzeko ahalegin handia egiten ari denik sumatzen ez zaiola.

Hizkuntza malgutasunez eta eraginkortasunez erabili dezake, helburu sozial, akademiko eta profesionalekin.

Testu argiak, ongi egituratuak eta xeheak ekoizteko gai da, baita gai konplexuei buruzkoak ere, testuaren antolaketa-, artikulazio- eta koherentzia-mekanismoak zuzen erabiliz.

## EBALUAZIO IRIZPIDEAK

Honako hauek izango ditugu kontuan ebaluatzeko orduan:

### 3. HE

IDAZMENA	
<b>Egokitasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gaiari heldu dio.</li> <li>Azalpenak eta argudioak eman ditu, eta ez da mugatu adibide eta pasadizo hutsetara.</li> <li>Hitz kopurua bete du.</li> <li>Testu mota errespetatu du. <i>(Adib.: iritzi-artikuluak eskatu bazaizu, ez idatzi helbururik gabeko idazlan hutsa).</i></li> <li>Testu osoan kontuan hartu du nori idatzi dion, zertarako, testuingurua... eta dagokion erregistroa zaindu du. <i>(Adib.: Ahoz erabiltzen diren adierazpideak sarri ez dira idatziz egokiak izaten: "nola aurreko eskutitzari ez diozun erantzun, ze oso lanpetuta zauden, hobeto izango zen...". Kontakizunak aurrera egin ahala pertsona-aldaketekin kontuz ibiltzea komeni da. Hau da, ez egin salto hirugarren pertsonatik bigarreneira: "...gero eta gidari gutxiagok errespetatzen ditu trafiko arauak; zuk zeuk ere beti ez duzu abiadura-muga errespetatzen").</i></li> </ul>
<b>Koherentzia</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ideiak argi, zehatz eta egoki antolatuta azaldu ditu.</li> <li>Testuaren egitura egokia da. Informazioa modu progresiboan eman du.</li> </ul>
<b>Kohesioa</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ideiak eta esaldiak ondo eta egoki lotu ditu; horretarako, testuari batasuna emateko kohesio elementu ugari zuzen erabili du. <i>(Adib.: lokailuak behar bezala erabilia, lagundu egingo dute irakurketan, baina lokailuen gehiegizko erabilerak mezua oztopatu baino ez du egingo: "...publizitatean gastatzen dutena berriro berreskuratzen dute. <u>Izan ere</u>, batzuetan produktu baten arrakasta publizitatearen mende dago. <u>Halaber</u>, publizitatea antolatu aurretik, aurrekontuetan kontuan hartzen dute zenbateko irabazia izan ahal den. <u>Horretaz gain</u>, aipagarria izan daiteke gure gizartean publizitateak daukan eragina...").</i></li> <li>Puntuazioa egoki eta zuzen erabili du. Testuaren irakurketa garbia da.</li> </ul>
<b>Aberastasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Lexiko orokorra, hau da, dibulgazio-gaiei dagokiena (eguneroko prentsa...) zuzen eta egoki erabili du.</li> <li>Ideiak egoki, zehatz adierazi ditu, egitura konplexuak ere egoki erabilia.</li> </ul>
<b>Zuzentasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>Ortografia zuzen erabili du.</li> <li>Ez du behin eta berriro errepikatzen den akatsik egin.</li> <li>Agertutako akatsak bakanak izan dira eta ez dute inondik inora ulergarritasuna oztopatu.</li> </ul>

### 3. HE

<b>MINTZAMENA</b>	
<b>Komunikagaitasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaiari buruzko azalpenak, iritziak eta ideiak argi, zehatz , ondo antolatuta eta egoki lotuta eman ditu.</li> <li>• Elkarrizketan iritzia, argudioak eta informazioa trukatzeko ez du arazorik izan; hau da, hitza hartzeko, hitzari eusteko, esan nahi duenari mugarik jarri gabe.</li> <li>• Ariketa bietan erabili du erregistroa egoki. <i>(Adib.: kontuan hartu bakarrizketan ez ezik, elkarrizketan ere ezezagun batekin ari zarela eta ez lagunartean).</i></li> </ul>
<b>Jariotasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bat-batekotasunez eta natural hitz egin du, bai bakarrizketan, bai elkarrizketan, aparteko ahaleginik egin gabe.</li> <li>• Hitz egitean ziurtasuna erakutsi du, gutxitan errepikatu ditu hitzak edota berrantolatu esaldiak.</li> <li>• Etenak behar bezala egin ditu, esaldien barruko zein esaldien arteko egiturak errespetatuta.</li> <li>• Entzulea eroso sentitu da.</li> </ul>
<b>Aberastasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lexiko orokorra, hau da, dibulgazio-gaiei dagokiena (eguneroko prentsa...) zuzen eta egoki erabili du.</li> <li>• Egitura konplexuak erabili ditu.</li> <li>• Ideiak egoki, zehatz adierazi ditu, nahiz eta gaiaren edo egoeraren berezitasunagatik zailtasunen bat izan hitz edo egitura aproposa aukeratzeko.</li> <li>• Baliabide ugari erakutsi du eta bere hizkera landua da.</li> </ul>
<b>Zuzentasuna</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Akats gutxi egin ditu; oro har, egin orduko zuzendu ditu.</li> <li>• Ahoskera eta intonazioa egokiak eta naturalak izan dira.</li> <li>• Ez du behin eta berriro errepikatzen den akatsik egin.</li> <li>• Agertutako akatsak bakanak izan dira eta ez dute inondik inora ulergarritasuna oztopatu.</li> </ul>